

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1027

EBAZPENA, 2021eko otsailaren 8koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez dei egiten baitzaie «Donostialdeko Metroaren Mirakontxa-Easo tartea eraikuntza-proiektua. 2. Fasea.» proiektuak ukitutako ondasunen eta eskubideen titularrei, Okupazioaren Akta Osagarriak egiteko ekitaldirako.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2017ko ekainaren 22ko Ebazpenaren bidez, «Donostialdeko Metroaren Mirakontxa-Easo tartea eraikuntza-proiektua» onetsi zen.

Lurzoruen beharrianari dagokionez, Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2017ko ekainaren 22ko Ebazpenaren bidez, aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zen, eta 2017ko azaroaren 16an behin betiko onartu zen, aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren.

2017ko abenduaren 19an, ukitutako ondasun eta eskubideen Okupazioaren Aurreko Aktak egin ziren Donostiako udaletxean.

2018ko otsailaren 12an, obren zuinketa-akta sinatu zen, tarte hori egikaritzeko lanei hasiera emanez.

Gaur egun, obra horiek egikaritzen ari dira, baina trazaduraren bi puntutan (Kontxan egongo den geltokiko haitzuloaren bi aldeetan) tunela hondeatzeko eta eusteko oso ezaugarri geotekniko kaltegarriak dituen lursail bat agertu da, eta horrek agerian utzi du hasiera batean aurreikusitako eraikuntza-konponbideak egin beharko direla proiektuan, eta, ondorioz, une honetan martxan dagoen obra bertan behera utzi behar izan da.

Horregatik, Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2020ko abenduaren 29ko Ebazpenaren bidez, «Donostialdeko Metroaren Mirakontxa-Easo tartea eraikuntza-proiektua. 2. Fasea.» onetsi zen. Bertan jasotako obrak jatorrizko proiektua amaitzeko beharrezkoak direnak dira.

«Donostialdeko Metroaren Mirakontxa-Easo tartea eraikuntza-proiektua. 2. Fasea.» proiektuak ez ditu aldatzen espediente horretan sartutako azalerako okupazioak.

Beraz, aurrekariak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendan (erantsita dago) agertzen diren titularrei dei egitea, bertan adierazitako egunean eta orduan Donostiako udaletxean ager daitezen Okupazioaren Akta Osagarriak egiteko.

Bigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Azpiegitura eta Garraioko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Idazki hori organo honi edo Azpiegitura eta Garraioko sailburuordeari bidali beharko zaio.

2021eko otsailaren 23a, asteartea

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik eragotzi gabe aldez aurretik errekerimendua egitea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Honen berri eman da denak jakitun izan daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 8a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2021eko otsailaren 23a, asteartea

ERANSKINA

Finka zenbakia	Katastroko erreferentzia	Jabea eta helbidea	Eragin mota (m ²)			Deialdia Donostiako Udala 2021-03-12
			Okupazio iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	Zortasuna	
003	8296098	Autonomia 20ko jabeakideen erkidegoa Autonomia 20 20009 – Donostia / San Sebastián	35	114		10:15
004	8296794	San Bartolomé Muinoa, S.A. Aldapeta 1 20009 – Donostia / San Sebastián		288		10:45
001	Bidea / jabari publikoa	Donostiako Udala Ijentea 1 20003 – Donostia / San Sebastián	309	20512	2815	11:15
002	F.F.C.C. bideak	Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea San Bizente 8 – Albia eraikina, 14.– 15. solairuak 48001 - Bilbao			962	11:30